

Ipar Amerika'tik Euskadi'ra begira

# LIBURU BIKAIN BAT

Latiegi'tar Bixente eta Oñatibia'tar Duxi'ri: Agur; artu det zuen liburu zoragarria, benetan ederra. X.X.'ek ekarri dit. Beste sei ale geiago eman dizkit, eta agindu bezala bidali ditut, agindutako tokietara.

Ori dana eginda, zuengana natorkizue. Batez ere, zuen liburu eder ori («EUSKAL-TZAINDIARI EPAIKETA») eskertu nai nizueke. Mesede ederra egiten diozue Euskalerriari eta Euskerari. Guzia argi azaltzen dezute, eta baita berri asko ematen ere. H'tarren jokua garbi agertzen da zuen liburu ortan: erriari euskal-arnas jatorra kendu nai diotela. Ortarako, arrotz-giroa sortzen saiatzen dira. Orrekin, erriari anima ta atsa aldatzen dizkiote. H'a aitzaki bat dala garbi agertzen dezute. Euskalerriari begiak irikitzen dizkizute. Erne dagonak argi beza begia.

Izkera berriz, erriarena darabilkizute, zartarkeririk gabea. Zuen eskua nolakoa dan idatziaz, idazkeran, agertzen dezute. Zuen erantzunik jatorrena, zuen euskera errikoa, argia, garbia, eta aberatsa da. Geroak azertuko ditu batzuen eta besteen lanak. Erantzunik jatorrena, nere ustez, ori da: idatzi, idatzi, eta ondo idatzi.

Naiko esku garbiak geroko gizaldietan ere izango dira gaurko emaitza jatorren aberastasuna jasotzeko.

Nik ez nuke esango zuen liburuarekin os-tiko bat ematen dezutenik, mesede ederra egiten dezutela baizik. Linguistika, izkuntza, aberastutzen dezute; baita edestia eta euskal-antropologia.

Zuen liburu ori gabe, EGIA lurpean geldituko litzake, eta belar txarra bakarrik ikusiko genuke.

Ezin det ixildu, nere iritziz, utsume zabala ikusten detela liburu ortan: Bergara'ko goraberak ez dituzute aipatzen. Benetan mingarria!

Antxe ibilli ziñaten argia zabaltzen. Eta, zuen jokaera guztiz aipagarria izan zan. Zuen esanerantzun aiek ez dira ixiltzeko. Gutxiago..., aztutzeko. Antxen ikusten zan nolako gizonak diran Mitxelena, San Martin, Billasante eta abar. Izkuntza zan alkarizketaren gaia, baiña izkuntzaren atzetik euskal-antropologia nolakoa dan agertzen zan. Gai aiek euskal-jakintza altxatzeko bearrezkoak ditugu. Zuen liburuaren bigarren agertaldian erantsi, arren, an gertatutakoa, ezer aztu gabe. Bestela, gure erriaren edestian ezeren az-tarnik ez zaigu geldituko. Dana dala, zuen liburu ederragaitik zorionak eta eskerrik asko. New York'etik agur bero bat biori.

*Jose Mari San Sebastian*  
«LATXAGA»

OARRA.—Ameriketatik iritxi zaidan eskutitz au egillearen baimenik gabe argitaratzen dut. Badot ortarako, adiskidetasunak emanda, eskubide betea. *Latiegi'tar Bixente*.